

**EGIN KIROLA
HAVE FUN!**

KIROLEAN HASTEAN

2022

2023

ESKOLA KIROLA

 **Bizkaia**
egiten





KIROLEAN HASTEAK

- 4_ HEZIKI
- 8_ KIROL ANITZA
- 14_ UDAL MAILAKO
KIROL ANITZA

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat jarduerak proposatzen ditu eskola-umeei **apurka-apurka** kirolaren munduan hasteko aukera emateko, bai benjaminareko kategorian (HEZIKI), bai benjamin kategorian (KIROL ANITZA eta UDAL MAILAKO KIROL ANITZA); horretarako, hau eskaintzen zaie:

- Baliabideak lortzea, hala nola mugimendurako, adierazpenerako eta sormenerako, baliabideak oso baliagarriak izango baitzaizkie eguneroko bizitzarako nahiz kirolerako, dela aisialdiko edo mantentzeko kirolerako, dela lehiaketa mailako kirolerako.
- Kirol batean baino gehiagotan hasteko aukera, ume bakoitzak bere aukera eta/edo interesei ondoen egokien zaiena aukeratu dezan.
- Etorbizunean, bizitza osoan zehar, pertsona heldua denean, bizitzako arlo horretako interesei eta aukerei ondoen egokitzen zaien kirol mota aukeratu ahal izatea.

Programa honetan beste ezaugarri berezi batzuk ere nabarmendu behar dira: batetik, jarduerak guztietan parte-hartzeari ematen zaiola garrantzia gehien, bestelako kirol jardueretan hain inportantea izan ohi den alderdi agonistiko edo lehiakorraren aurretik; bestetik, jarduerak guztiak neska-mutilentzat direla, eta, azkenik, jarduerak naturarekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen dutela.



KIROLEAN HASTEAK HEZIKI

HEZIKI benjaminaurreko kategoriako eskola-umeentzat (Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak) bereziki diseinatutako jarduera da. Jarduera honen bitartez, umeek trebetasun motorrak garatzea sustatu nahi da, haien ekintzen kudeaketa autonomoa ahalbidetzeko, eta etorkizunean egin nahi dituzten kirolak ikasteko prozesuan proposatzen zaien edozein ekintza motor egiteko gai izan daitezten, lortu beharreko gaitasun-maila edozein dela ere (parte-hartzea eta/edo errendimendua). Hori guztia, egin beharreko ekintzak gustura egitea ahalbidetzen duen giro batean, kirola eta jarduera Fisikoa egiteko zaletasuna sustatzeko.

IZEN-EMATEA NORK?

ERAKUNDEAK

Izena emateko aukera hauek daude: Bizkaiko Lurralde Historikoan ikasketak ofizialak ematen dituzten ikastetxeak, horietako guraso elkarteak edo horiei atxikitako kirol erakundeak, ikastetxe zein kirol elkarteei loturiko Fundazioak, zein Bizkaiko Lurralde Historikoko udal, haien udal erakunde autonomo edo kirolen udal Fundazio publikoak.

PARTE-HARTZAILEAK

Modalitate indibiduala denez ez dago gehieneko kopururik. Denboraldian zehar zenbat gura aldaketa egin ahal izango da taldeen osieran.

KIROLA: HEZIKI						
PARTAIDEEN KOPURUA			KIROL MODALITATEA		ERAKUNDE PARTAIDEA	
GUTXIE-NEZ	PROPOSATUTAKO GEHIENEOA (DIRUZ LAGUN DAITEKEENA)	GEHIE-NEZ	BANAKA	TALDEKA	IKASTEXEA	UDALA
6			I		C	A



ENTRENATZAILEAK

Hezikiko entrenatzaileek kirol titulazio hauetako bat aurkeztu behar dute gutxienez:

KIROL TITULAZIOA	TITULAZIO AKADEMIKOA
ENTRENATZAILE NAZIONALA III. MAILA	Gorputz Hezkuntza liz. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan liz Goi Kirol Teknikaria
HERRIALDEKO ENTRENATZAILEA II. MAILA	HFko irakaslea «Gorputz- eta Kirol-ekintzen Animazioa» goi-mailako zikloa. Kirol teknikaria:
I. MAILA	Inakasle-ikasketak «Natura-inguruneko gorputz- eta kirol-ekintzen gidaritza» erdi-mailako zikloa
BEGIRALEA I. MAILAKO BLOKE OROKORRA/ ESKOLA-KIROLEKO MONITORE LAGUNTZAILEA	
ESKOLA KIROLEKO BEGIRALEA	



NOLA? Izena eman nahi duten erakunde guztiek «Erakundeek izena emateko orria» (I-EK 1 Formularioa) izeneko inprimakia bete beharko dute. Eskabideak www.bizkaia.eus/eskolakirola web-orriaren bidez aurkeztu ahal izango dira, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirola Sailean kirolez arduratzen den zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan. Kirol Etxean laguntza jaso ahalko da halaber (Martin Barua Pikaza kalea 27, Bilbo-48003).

Taldean nahiz haietako parte hartzaileen izen-ematea lau modutan egin daiteke: www.bizkaia.eus/eskolakirola web-orrian, Kirol Etxean (Martin Barua Pikaza kalea 27, Bilbo-48003), Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirola Sailean kirolaz arduratzen den Zerbitzuan (Bilboko Rekalde zumarkalea 30-1., astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen moduan.

Izena eman nahi duenak baliabide inFormatikorik ez badu, Kirol Etxean (Martin Barua Picaza kalea, 27, Bilbo) erabilgarri dauden ordenagailuak erabili ahal izango ditu horretarako.

Izen-ematea behar bezala egin behar da balioduntzat jotzeko (gutxieneko kirolari kopurua, kirol arduraduna, helbide elektronikoa...).

Era berean, erakundeak lehenengoz ematen badu izena Bizkaiko Eskola Kirola programan erakundearen IFKren kopia aurkeztu behar du.

Izena ematerakoan kirolari guztien argazki digitala aurkeztu behar da.



EPEAK Izena emateko epeak honako taula honetan ezarritakoak dira:

IZENA EMATEKO EPEA		
KIROL JARDUERA	HASIERA	AMAIERA
HEZIKI	IRAILAREN 1a	URRIAREN 24a

MATERIALA Lehenengo aldiz izena ematen duten enakunde guztiei material hau emango zaie, doan:

- Bi urterako programa metodologikoa.
- 2 egokigailu eskubaloiko/aneto-Futboleko aterako, eta ate eramangarri bat.
- Heziki baloiak (foam).

KIROLEAN HASTEKO jarduera bat denez, hiru kontzentrazio (HEZIKIKETAK) egingo dira ikasturtean zehar (hiruhileko bakoitzean bat). Kontzentrazio horietan, kirolariei erakutsiko zaie zer den lehiaketako jardunaldi bat benjamin kategoriatik gona. Denboraldian zehar jakinaraziko da noiz eta non antolatuko den HEZIKIKETA bakoitza.

ARGIBIDE GEHIAGO:
www.bizkaia.eus/eskolakirola

KIROLEAN HASTEAK KIROL ANITZA



Hezikiren bi ikasturteak amaitu ondoren, KIROL ANITZEKO lehiaketa-jardueran inskribatzea gomendatzen da, jarduera honetan hainbat kiroleetan hasteko aukera izango baitute kirolariek, beren ezaugarri eta/edo interesetara gehien egokitzen dena aukeratu ahal izateko.

ARAUDI OROKORRA

1. TALDEEN OSAERA

1.1 Talde bakoitzak gutxienez 8 jokalaria eta gehienez 15 izango ditu. Taldeak mutilenak, neskenak edo mistoak izan daitezke, eta lehiaketa berean parte hartuko dute guztiek. Taldeko kide bakoitza gutxienez behin arituko da kirol modalitate bakoitzean.

2. TALDEEN IZEN-EMATEA

2.1 Ikastetxeak izena eman eta gero, jarduera honetan parte hartu nahi duten talde guztiek interneten bidez (www.bizkaia.eus/eskolakirola) egin beharko dute inskripzioa 2022ko irailaren 1etik irailaren 26ra.

3. JARDUERAREN GARAPENA

3.1 Egutegi batean jasoko dira kirol modalitate guztiak; bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartuta, egun bateko liga bat edo egun bateko jardunaldiak antolatuko dira, eta talde guztiek parte hartuko dute.

3.2 Liga gisa garatzen diren jardueretarako programatutako eguna (larunbata) aldatu ahal izango da talde biak ados jartzen badira eta Kirol Zerbitzu honek bai-mena ematen badu.

3.3 Etxeko partidaren aktak Eskola Kiroleko bulego nagusira (Martín Barua Picaza kalea 27, 48003 Bilbo) eraman beharko dira, hurrengo jardunaldia baino lehen. Posta elektronikoz (eskaneatuta) edo Fax-ez (94.441.81.65) bidal daitezke.

3.4 Akta guztiak jaso ez badira, aurkeztu ez duen edo duten taldeek dagokien dirulaguntza galduko dute.



3.5 Liga gisa garatzen diren kiroletan bi arbitro arituko dira, ikastetxe bakoitze-ko bat, baina jardunaldia garatzen den ikastetxearen ardura izango da jaso be-harrekoa idatziz jasotzea. Ikastetxeetako batek arbitronik ez badu, bestearenak zuzenduko du jarduna. Dena dela, proba egiten den ikastetxeari dagokio arbitra-jeaz arduratzea eta gertatutakoa idatziz jasotzea.

3.6 Taldekako lehiaketa-kiroletan, jarduera hobeto antolatzeko, entrenatzaileak (edo, bestela, hark izendatutakoak) laguntza eskaini beharko die lehiaketako epai-leei hauek eskatutako guztian.

3.7 Jarduera honetako edozein modalitatetan parte hartzerakoan, eskola-lizent-zia aurkeztu beharko da.

4. PUNTUAZIOA

4.1 Kirol-jarduenetan ez da inolako sailkapenik izango; horren ondorioz, taldekako kirol modalitateetan berdinketa izanez geno, ez da luzapenik edo berdinketa hori kentzeko beste saio gehigarririk egingo.

4.2 Aktetan ezarritako puntuazioa bakarrik hartuko da kontuan, hau da, taldeak (jokalariak, entrenatzaileak eta jendeak) jardunaldi bakoitzean izan duen jarrera orokorrari buruzkoa.

4.3 Atletismo eta igeriketa taldeetako kideek lortutako banakako emaitzen ze-rrerendak bidaliko dira.

5. BESTE KIROL MOTA BATZUK

Programatutakoekin bat ez datozen beste kirol jarduera batzuen egutegiak an-tolatu ahal izango dira. Horretarako, gutxienez, kategoria bereko bost (5) taldek aurkeztu beharko dute eskabidea, idatziz, egin nahi dituzten kirol modalitateak zehaztuta. Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak aurkeztutako proposamena egokia eta bideragarria den aztertuko du.



EZAUGARRIAK

Hauek dira egin daitezkeen kirolak: **atletismoa, saskibaloia, 5eko eskubaloia, beisbola, txirrindularitza, krosa, 5eko Futbola, mendia, igeriketa, euskal pilota eta errugbia.**

Saskibaloiko, 5eko eskubaloiko eta 5eko Futboleko probak liga eran gauzatuko dira, denboraldi guztian zehar (1. zatia, saskibaloia; 2. zatia, 5eko eskubaloia, eta 3. zatia, 5eko Futbola).

Gainerako kirolen jardunaldiak aldi berean gauzatuko dira, egutegi orokorrari erantsiko zaizkion instalazio eta egunetan, eta Bizkaiko Federazioek antolatuko dituzte.

ESPEZIALITATE BAKOITZAREN ARAUAK

1. ATLETISMO

1.1 Talde bakoitzak 8 atleta izango ditu gutxienez, eta Atletismo Txikiko probetan hartuko dute parte.

1.2 Topaketa bakoitzean lasterketa bi, jauzi bat, jauntiketa bat eta errelebo-lasterketa bat egingo dira.

1.3 Parte-hartzaile bakoitzak kartoi mehe bat eramango du, une oro, eta bertan jasoko dira jardunaldiko emaitza guztiak. Ikastetxeek Bizkaiko Atletismo Federazioan dituzte eskura kartoi meheok.

1.4 Hemen zehazten ez denerako, Bizkaiko Atletismo Federazioaren erregelamenduko arauak hartuko dira.

2. SASKIBALOIA

2.1 Taldeak 8 jokalarik izango ditu gutxienez eta 15 gehienez. Jokalariak zati oso batez jolastu beharko dute.

2.2 Partidak 10 minutuko 4 zati izango ditu, denbora konnituan jokatuko direnak. Zatien artean, 5 minutuko atsedenaldia egongo da.

2.3 Berdinketak egon daitezke, baina ez da luzapenik jokatuko.

2.4 Hemen zehazten ez denerako, Bizkaiko Saskibaloiko Federazioaren erregelamenduko arauak hartuko dira.



3. 5EKO ESKUBALOA

3.1 Taldeak 8 jokalarri izango ditu gutxienez eta 15 gehienez. Jokalarriek zati oso batez jolastu beharko dute.

3.2 Partidak 10 minutuko 4 zati izango ditu, denbora korrituan jokatuko direnak. Zatien artean, 5 minutuko atsedenaldia egongo da.

3.3 Berdinketak egon daitezke, baina ez da luzapenik jokatuko.

3.4 Hemen zehazten ez denerako, Bizkaiko Eskubaloi Federazioaren erregelamenduko arauak hartuko dira.

4. BEISBOLA

4.1 Beisbolari buruzko hastapen-jardunaldiak. Jardunaldi honiek Bizkaiko Beisbol Federazioaren zuzendaritza teknikoaren pean egingo dira.

4.2 Jardueraren ezaugarriak Federazioko arduradunak ezarriko ditu partaide kopuruaren eta instalazioen ezaugarrien arabera.

5. TXIRRINDULARITZA

5.1 Txirrindularitzari buruzko hastapen-jardunaldiak.

5.2 Jardueraren ezaugarri zehatzak jardunaldian arduradun teknikoak ezarriko ditu partaide kopuruaren eta instalazioen ezaugarrien arabera.

6. KROSA

6.1 Taldeek Bizkaiko Atletismo Federazioak antolatutako eskola-krosetan parte hartu ahal izango dute, ezarritako araudia beteta.

7. 5EKO FUTBOLA

7.1 Talde bakoitzak 8 jokalarri izango ditu gutxienez eta 15 gehienez. Jokalarriek zati oso batez jolastu beharko dute gutxienez, eta bi zatiz, gehienez.

7.2 Atezainek zelaiko jokalarri gisa jokatu behar izango dute zatietariko batean; gerta daiteke hiru zatietan jokatzea ere.



7.3 Partidak 15 minutuko 3 zati izango ditu, denbora korrituan jokatuko direnak. Zatien artean, 5 minutuko atsedenaldia egongo da.

7.4 Jokalariak aldatzeko modua egongo da, betiere aurreneko araua betetzen bada.

7.5 Hemen zehazten ez denerako, Bizkaiko Futbol Federakundearen erregelamenduko arauak hartuko dira.

8. MENDIA

8.1 Taldeek Bizkaiko Mendizale Federazioak antolatutako inteenetan parte hartu ahal izango dute, ezarritako araudia beteta.

8.2 Eskaladako hastapen-urratsei buruzko jardunaldi bat egingo da.

8.3 Jardueraren ezaugarri zehatzak jardunaldiaren arduradun teknikoak ezarriko ditu partaide kopuruaren eta instalazioen ezaugarrien arabera.

9. IGERIKETA

9.1 Taldeek Bizkaiko Igeriketa Federazioak antolatutako eskola-jardunaldietan parte hartu ahal izango dute, ezarritako araudia beteta.

9.2 Jardueraren ezaugarri zehatzak jardunaldiaren arduradun teknikoak ezarriko ditu partaide kopuruaren eta instalazioen ezaugarrien arabera.

10. EUSKAL PILOTA

10.1 Euskal pilotari buruzko hastapen-jardunaldiak.

10.2 Parte-hartzaileek euskal pilotaren oinarrizko modalitateak ezagutuko dituzte (esku-pilota, pala eta zesta), haien adinerako bereziki prestatutako materialarekin, n-beregi diseinatutako materialarekin, Bizkaiko Eusko Pilota Federazioaren zuzendaritza teknikoaren pean.



11. ERRUGBIA

11.1 Izena eman duten eskola-umeei errugbiaren modalitatena hurbiltzeko aukera emateko jardunaldiak. Jardueraren ezaugarri zehatzak jardunaldiaren anduradun teknikoak azalduko baditu ere, kirolariak errugbiaren oinarriko arauak ikasiko dituzte; partida bat jokatuko dute haien artean, eta errugbiaren hirugarren denbora zer den ezagutu ahal izango dute.

MODALITATEAK 22 - 23

BENJAMINA	
TALDEKAKO KIROLAK	5EKO FUTBOLA SASKIBALOIA 5EKO ESKUBALOIA ERRUGBIA
BANAKAKO KIROLAK	ATLETISMOA BEISBOLA ESKALADA
BERTAKO KIROLAK	HERRI KIROLAK EUSKAL PILOTA ARRAUNKETA
BESTE BATZUK	IGERIKETA TXIRRINDULARITZA KROSA MENDI-IRTEERAK



KIROLEAN HASTEA

UDAL MAILAKO KIROL ANITZA

NORK? Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek, haien udal erakunde autonomoek edo kirolaren udal Fundazio publikoek UDAL MAILAKO KIROL ANITZEKO JARDUERA antolatu ahal izango dute, udalerriko benjamin kategoriako eskola-umeentzat, Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuaren baimena lortu ondoren.

NOLA? Erakundeak, horretarako, UDAL MAILAKO KIROL ANITZEKO PROIEKTUA aurkeztu behar du, 2022ko irailaren 23a baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan (Rekalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo; ondutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 30/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan.

IZEN-EMATEA

Proiektua onartu ondoren, udalerriko hezkuntza-erakundeek, kirol-elkartek edo udalak berak taldeen izen-ematea egin dezakete, honela: www.bizkaia.net/eskolakirola webean, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzuan (Rekalde zumarkalea 30, 1. solairua, Bilbo; ondutegia: astelehenetik ostiralera, 8:30etik 13:30era), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 30/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan. 2018ko irailaren 3tik urriaren 15era.

IZENA EMATEKO EPEA

2022ko inailaren 1etik urriaren 10era arte.